

- [Iragarkia](#)
- Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko arautegia
 - [Sarrera](#)
 - [I. kapitulua - HARPIDEDUNAK ETA ERABILTZAILEAK](#)
 - [II. kapitulua - ORDUTEGIA ETA INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK](#)
 - III. kapitulua - ZERBITZUAK ETA JARDUERAK
 - [1. atala; - Ikasleentzako gorputz-hezkuntza eta igeriketa](#)
 - [2. atala - Kirol-eskolak eta ikastaroak](#)
 - IV. kapitulua - INSTALAZIOEN ERABILERA
 - [1. atala - Instalazioen erabilera orokorra](#)
 - [2. atala - Sakoneta kiroldegia](#)
 - [3. atala - Kandelazubieta kiroldegia](#)
 - [4. atala - Sarrienako instalazioak](#)
 - [5. atala - Ondiz probalekua](#)
 - V. kapitulua - KIROL-INSTALAZIOAK ERRESERBATZEA
 - [1. atala - Alderdi orokorrak](#)
 - [2. atala - Sarrienako zelaiak](#)
 - VI. kapitulua - UKIKO ZERBITZUAK
 - [1. atala - Kirol medikuntza zerbitzua](#)
 - [2. atala - Masaje zerbitzua](#)
 - [3. atala - Sauna zerbitzua](#)
 - [VII. kapitulua - HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK](#)
- [Azken xedapena](#)

ddtreemenu.createTree('treemenu1', true) ;

IRAGARKIA

Osoko bilkuraren 2002ko uztailaren 23ko ebazpenaren bidez, "Udaleko kirol-instalazioak erabiltzeko araudia" aldatzea hasieran onetsi zen. Azkenean, aldaketa hori behi betiko onetsi da, iragarkia jendaurrean egon den epean (bi mila eta biko abuztuaren hogeita zortzitik urriaren zazpira bitartean, biak barne) ez baita erreklamaziorik aurkeztu.

Eta 70.2 artikulua Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985 Legeko 65 artikuluari buruz xedatzen duena betez, jarraian "Udaleko kirol-instalazioak erabiltzeko araudia" oso-osorik argitaratu dugu. Iragarki hau argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita hamabost lanegun igarotzen direnean sartuko da indarrean araudia.

UDALEKO KIROL-INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIA

SARRERA

Leioako Udaleko kirol-instalazioek (hemendik aurrera UKI izendatuko ditugu) udalerriko bizilagunen artean kirola sustatzea dute helburu, kirolak pertsonari guztiz garatzen laguntzen diola kontuan izanda.

Hala ere, aipatutako helburuari kalterik egin gabe, batzuetan instalazioak gizarte edo kultur arloko jarduerak burutzeko erabili ahal izango dira.

Kirol-jarduerak gero eta gehiago direnez eta instalazioetara joaten diren erabiltzaileen kopurua ere handia denez, gomendagarria da araudia eguneratzea, instalazioak erabiltzeari dagokion guztia araupetzeko.

Hona hemen, udalerrian, kirol-instalazioen funtzionamenduaren oinarrian dauden asmoak:

- Udalerriko ikasleek gorputz-hezkuntza egin ahal izatea.
- Eskaintza zabala ematea, udalerriko gizarte-sektore guztiek kirola praktikatu ahal izan dezaten.
- Programak eta jarduerak hobetuz, kirola sustatzea.
- Antolatutako kirol-jardueretan parte hartzen duten pertsonen jarraipen tekniko eta medikuntza-

jarraipena egitea.

·Kulturan eta hezkuntzan kirola sartzeari, praktika edo ikuskizun bezala.

I. KAPITULUA - HARPIDEDUNAK ETA ERABILTZAILEAK

1. ARTIKULUA

UKIak harpidedun edo erabiltzaile gisa erabil daitezke; gainera, zenbait pertsonak ikastetxe edo beste erakunde edo taldeekin egindako hitzarmenen bidez ere erabil ditzakete instalazioak.

Harpidedunak doan sartu ahal izango dira UKIetako instalazioetara eta, gainera, aplikaziorako Ordenantza Fiskalean jarduera eta zerbitzu desberdinetarako araupetzen diren tarifa bereziak izango dituzte.

Kirol-instalazio bakoitzaren sarreran, erraz ikusteko moduan, jardueri eta ikastaro edo zerbitzuei buruzko ordutegiaren taula bat agertu behar da, eguneratuta.

Ezarritako ordutegiak aldatu egin ahal izango dira txapelketak, ikuskizunak edo erakusketak daudenean edo aldaketa egitea aholkatu edo eskatzen duten egoera bereziak badaude.

2. ARTIKULUA

1.- Harpidedun egiteko, beharrezko eskabidea betetzerakoan, Leioako udalerrian bizi behar da, leioaztar izan behar da, Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren 1986ko ekainaren 11ko Araudiaren 53.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki; gainera, izena emateko egin beharreko izapideak araudi honetan ezarritako baldintzen arabera egin behar dira.

2.- Familia osoarentzako harpidetza edo banakako harpidetza egin daiteke.

3.- Harpidedun egiteko inskripzioa formalizatzeko honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

·Interesduna Leioako udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria (eguneratua).

·Harpidedun egin nahi duen pertsonaren edo pertsonen argazkia, berria eta nortasun-agirirako moduko neurrikoa.

·Familia osoa harpidetzeko, familia-liburuaren fotokopia (interesdunaren edo interesdunen datuekin), eta banakako harpidetza egiteko, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Ezkondu gabe dauden bikoteek bizikidetzatxostena aurkeztu behar dute.

·Alta-inprimakia, behar bezala beteta.

·Izena eman den seihilekoan ordaindu beharreko kuota ordaindu dela adierazten duen agiria.

·UKIetan jarduerak egin edo zerbitzuak erabiltzeagatik zorrak izanez gero, zorra kitatu dela egiaztatzeko agiria eskatuko da.

4.- Aurreko atalean adierazitako agiriak entregatu ondoren, interesdunak goitik beherako harpidedun izango dira eta, harpidedun gisa, kirol-instalazioak erabili ahal izango dituzte, harpidedun-agiria jaso ez badute ere bai. Harpidedun-agiria lehenbailehen emango zaie interesdunei.

3. ARTIKULUA

Familiarentzako harpidetzan eskatzailearen ezkonlaguna edo laguna eta eskabidea egiterakoan 26 urte bete ez dituzten seme-alabak (bienak edo batenak) sartzen dira.

4. ARTIKULUA

Araudi honetako 2. artikuluan xedatutakoaz gainera, UKIko harpidedun egin daitezke, Leioako udalerrian erroldatuta egon ez arren, artikulua honetan ezarritako baldintza zehatzak betetzen dituzten pertsonak.

Harpidedunok banakakoak izango dira beti eta "harpidedun berezi" izendatuko dira. Harpidedun berezi izateko UKIetan izena ematerakoan Leioako udalerriko enpresaren baten lanean egon behar da edo Leioan dagoen negozio, saltoki edo, orokorrean, enpresa bateko titular izan behar da.

Harpidedun gisa inskripzioa formalizatzeko banakako harpidedunek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu behar dituzte, 2.3. artikuluan zehaztutakoak. Erroldatze-ziurtagiriaren ordezkari gabe Leioan lanean ari direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute edo udalerrian negozio, saltoki edo enpresa baten titular direla. Horrela bada, inoren mendean dauden langileen kasuan, nahikoa izango da enpresek ematen duten 10-T inprimakiaren kopia konpultsatua aurkeztea; inprimaki hori interesdunak egin behar izan zuen PFEZaren azken aitortpenekoa izan behar da.

Enpresen titularrek, berriz, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta eman dutela ziurtatzen duen agiriaren kopia konpultsatua eta zerga horren ordainketan egunean daudela ziurtatzeko egiaztatzea aurkeztu behar dituzte.

"Harpidedun bereziek" beste harpidedunek bezalako eskubideak izango dituzte; salbuespena UKIek antolatutako ikastaro eta jardueretan izen ematerakoan egongo da, kasu horretan, Leioako udalerrian erroldatuta ez daudenean bezalako tratua jasoko dute eta.

5. ARTIKULUA

Harpidedun izaera pertsonala da eta ezin da inorendu; horrela bada, harpidedun-agiria titularrak baino ezin izango du erabili.

6. ARTIKULUA

Norbaitek harpidedun-agiria lapurtuz gero, edo agiria galdu edo hondatu egiten bada, kopia bat emango da; halere, agiriaren kopia jaso aurretik beharrezko egiaztapenak egingo dira eta horretarako onetsitako tasa ordaindu beharko da.

Argazkia gaurkotu edo izenaren eta/edo abizenen grafia aldatzeko agiri berria egiteagatik ez da inolako tasarik ordaindu behar izango.

7. ARTIKULUA

Interesdunak UKIko harpidedun izateari utziko dio honako kasu hauetan:

- Interesdunak, idatziz, baxa hartu nahi duela eskatzen badu. Eskabidea baxa hartu aurreko seihilekoan egin behar da.
- Udalak ezarritako epearen barruan seihileko kuota ez ordaintzearen ofiziozko baxa ematen bazaio. Kasu horretan, ordaindu gabeko zenbatekoa zorretan geratuko da eta nahitaez kobratuko da, dagokion gainordaina barne; sortutako gastuak ere zordunak ordaindu beharko ditu.
- Leioako erroldatik kanpo geratzeagatik ofiziozko baxa ematen bazaio. Baxak eragina izango du erroldatik kanpo geratu eta hurrengo seihilekoko lehenengo egunean.
- Harpidedun bereziek, urtero, urtarrilaren 20a baino lehen, azken 10-T-aren kopia konpultsatua edo Jarduera Ekonomikoen Zergaren ordainagiria aurkezten ez badute.

8. ARTIKULUA

UKIetako erabiltzaileak dira, harpidedun izan ez arren, ezarritako tasa ordaindu ondoren instalazioetara doazenak.

Nolanahi ere, aldian-aldian antolatzen diren ikastaro edo jardueretan izena emateko, erabiltzaileak Leioako bizilagun izan behar dira. Hala ere, dimentsioagatik, errentagarritasunagatik edo justifikatutako beste edozein arrazoi dela-eta, ikastaro edo jarduera batzuetan leioaztarrek ez diren interesdunak onartzea erabaki daiteke.

II. KAPITULUA - ORDUTEGIA ETA INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

9. ARTIKULUA

Kasu bakoitzean eta une bakoitzean, Alkatetza-Udalburutzak erabakiko du noiz zabaldu eta itxiko diren kirol-instalazioak.

Kirol-jarduerak egin, zerbitzuak erabili eta ikastaro edo jardueretan izena ematearren indarrean dauden tasak ordaindu behar dira, une horretan ezarrita dauden edo etorkizunean ezar daitezkeen hitzarmenetatik, UKIak erabiltzeko erakundeekin edo pertsona fisiko zein juridikoekin egindako hitzarmenetatik, eratorritako balizko bereziak alde batera utzi gabe.

III. KAPITULUA - ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

1. ATALA - Ikasleentzako gorputz-hezkuntza eta igeriketa

10. ARTIKULUA

Ikasturtean eta eskola-orduetan, UKIek udalerriko ikasleei emango diete lehentasuna.

Ikastetxe bakoitzak instalazioak erabiltzeko baldintza zehatzak ikasturte hasieran onetsiko dira, UKIetako zuzendariaren proposamenez eta Kultura, Kirol eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak irizpena eman eta gero.

2. ATALA - Kirol-eskolak eta ikastaroak

11. ARTIKULUA

Leioako Udalak, leioaztarren eskaera bete nahian eta UKIak ondo aprobetxatzeko asmoz, kirol-eskolak eta ikastaroak antolatuko ditu hala behar duten espezialitate edo jardueretarako.

Kirol-eskola edo ikasturte horiek, eta, orokorrean, antolatutako jarduerak aurrera egitea ala ez egitea Udalaren erabakia izango da eta onarpenean, funtzionamenduan eta emaitzan eragina duen zirkunstantzia oro balioztatuko da.

1. artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoari jarraiki, eskola, ikastaro eta jardueretan izena emateko baldintzak eta betekizunak beti egon behar dira ikusteko moduko lekuan.

12. ARTIKULUA

Kirol-eskoletan, ikastaroetan eta, orokorrean, antolatutako jardueretan izena emateko, aurretik beharrezko tasa ordaindu behar da.

Eskaera eskaintza baino handiagoa bada, hona hemen izena ematerakoan erabiliko den lehentasun-irizpidea:

- Interesdunak jardueran daraman denbora,
- UKIko harpidedun izatea,
- Leioako udalerriko bizilagun izatea,
- Eskabideak aurkezteko ordena.

Izena ematen dutenei izena eman dutela egiaztatzen duen agiria emango zaie; agiri horretan agertzen diren datuekin praktikatzen duten jarduera dagoenean UKIetara sartu ahal izango dute. Ezarritako epean jardueragatik ordaindu beharreko prezioa ordaintzen ez bada -kuota edo kontzeptu batzuei bakarrik eragiten badie ere-, interesduna jardueratik kanpo geratuko da automatikoki.

13. ARTIKULUA

Izena ematerakoan interesdunak ikastaroa edo jarduera zein ordutan burutu nahi duen aukeratuko du.

Interesdunak, osasun- edo lan-arrazoiak direla-eta, ezin badu joan izena eman duen ikastaro edo jarduerara, izena ematerakoan ordaindu duen zenbatekoaren zati proportzionala itzuliko zaio.

Horretarako, ikastaroa edo jarduera egutegiko hamabostaldietan banatuko da eta dirua horren arabera itzuliko da, ikastaroa edo jarduera zenbat hamabostalditan burutu den edo ez den kontuan izanda.

Interesdunak, aipatu bezala, dirua itzul diezaioten eskubidea izan dezan, medikuaren txostena edo enpresako ziurtagiria aurkeztu behar ditu, eta agiri horietan jarduera egiteko medikuaren kontraindikazioa edo lanarekiko bateraezintasuna egiaztatuta agertu behar dira.

Aurreko ataletan ezarritakoaz gainera, pertsona batek, egun zehatz batean ezin badu joan izena eman duen ikastaro edo jarduerara, horretarako ezarritako ordutegian, beste ordutegi batean joan ahal izango da ikastaro edo jarduera horretara, baita muskulazio eta fitness gelara ere; hala ere, horretarako, arduradunarekin hitz egin behar du eta arduradunak ordu-tarte horretan berarentzako lekua badagoela jakinarazi behar dio. Ordutegiko aldaketa zehatz horrek ez du esan nahi interesdunaren ordutegia eta jarduera aldatzen direnik. Muskulazio edo Fitness gelara joateko beharrezko sarrera ordaindu behar da.

IV. KAPITULUA - INSTALAZIOEN ERABILERA

1. ATALA - Instalazioen erabilera orokorra

14. ARTIKULUA

Kirol-instalazioak erabili nahi badira, oinetako edo tresna egokiak erabili behar dira eta instalazio bakoitzerako zehaztutako arauak bete behar dira.

Nolanahi ere, orokorrean, UKIetan ezin da:

- Erre eta jan, horretarako egokitutako lekuetatik kanpo.
- Arropaz aldatu aldageletatik kanpo.
- Instalazioetako beste erabiltzaileak molestatu ditzakeen ezer egin.
- Larrialdietarako atek arrazoi gabe zabaldu.
- Objektu zorrotzik edo, orokorrean, arriskutsuak izan daitezkeen osagaiak dituen objekturik

(botilak, edalontziak, etab.) sartu.

Zerbait debekatuta dagoen ala ez ziur jakin ezean, UKIetako langileak arduratuko dira arazoa konpontzeaz.

15. ARTIKULUA

1.- UKIetako harpidedunek eta erabiltzaileek armairuak izango dituzte kirola praktikatzan duten bitartean behar ez dituzten arropak eta objektuak gordetzeko.

Armairu mota bi daude:

·Alokatzeko armairuak. Egutegiko seihilekoetan kontratatu daitezke, aurretik beharrezko tasa ordainduta.

·Txanponekin ixten diren armairuak. Armairu horiek egunero erabiltzeko dira, beraz, jarduera amaitutakoan bertan gordetako objektuak atera egin behar dira eta giltza dagokion armairuan utzi behar da.

Armairuan gordetako objektuak lapurtzen badituzte edo objektuok kalterik jasaten badute, Leioako Udalak ez du erantzukizuna bere gain hartuko.

2.- Era berean, instalazioei atxikitako aldagela batzuetan instalazioak erabiliko dituzten pertsonak baino ezin izango dira sartu.

Aldageletan utzitako objektuak lapurtzen badituzte edo objektuok kalterik jasaten badute, Leioako Udalak ez du erantzukizuna bere gain hartuko.



2. ATALA - Sakoneta polikiroldegia

16. ARTIKULUA

Dauden igerileku klimatizatu biak jolaserako nahiz kirola egiteko erabili daitezke. UKIetako harpidedunek doan sartu ahal izango dute igerilekuetara; erabiltzaileek, berriz, une horretan indarrean dagoen tasaren arabera diru-kopurua ordaindu beharko dute.

UKIetako zuzendaritzak igerilekuko zenbait kale erreserbatu ditzake igeriketa praktikatzeko, entrenamendu gisa nahiz lehiaketa gisa.

Igerilekuak erabiltzerakoan zenbait arau hartu behar dira kontuan; hona hemen:

·Derrigorrez dutxatu beharko da uretan sartu aurretik eta txano egokia eraman beharko da. Horrez gainera, ezin izango da kaleko arroparekin edo kaleko oinetakoekin egon bainatzeko tokian.

·Igerileku txikia igeri egiten ez dakiten pertsonentzat da.

·Bainua librea denean, zortzi urtetik beherako umeek ezin dute igerilekura joan adinez nagusia den pertsona batekin ez badoaz.

Azkenik, pertsona asko dagoenean, igerilekura harpidedunak bakarrik joan daitezkeela erabaki dezake udaleko kirol-instalazioetako arduradunak.

17. ARTIKULUA

Búlder gelan eskalada blokean (entrenamendua edo lehiaketa) eta borroka-arteak (tatamian) bakarrik praktikatuta daitezke.

UKIetako harpidedunak doan sar daitezke búlder gelara; erabiltzaileek, berriz, sarrera ordaindu behar dute, une horretan indarrean dauden tasen arabera. Búlder gelara gela hori erabiltzen duten pertsonak bakarrik sar daitezke, publikoarentzako ikuskizun irekiak (lehiaketak, erakusketak...) antolatzen diren egunetan salbu.

Tatamia duen gelara borroka-arteetako ikastaro eta eskoletan izena eman duten pertsonak baino ezin dute sartu.

18. ARTIKULUA

Fitness eta muskulazio gelara kirol-jarduera horietan matrikulatutako harpidedunek edo erabiltzaileek baino ezin dute sartu.

Makina eta ekipamenduen higiena zaintzeko, gela honetan bakoitzak bere eskuoihal eraman behar du.

19. ARTIKULUA

Polikiroldegiko pista erabiltzeko, pistan praktikatu daitekeen edozein jardueratarako, pista aurretiaz erreserbatu behar da, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

20. ARTIKULUA

Squash pista erabiltzeko ere, pista aurretiaz erreserbatu behar da, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

21. ARTIKULUA

Egurrezko gimnasia sartzea librea da; banaka erabili daiteke, aurretiaz erreserbatu beharrik gabe, bertan ikastaroren bat, lehiaketaren bat edo Zuzendaritzak baimendutako ekintzaren bat egiten ari ez badira, behintzat.

22. ARTIKULUA

Erabilera anitzeko gelara sartzea librea da; banaka erabili daiteke, aurretiaz erreserbatu beharrik gabe, bertan ikastaroren bat, lehiaketaren bat edo Zuzendaritzak baimendutako ekintzaren bat egiten ari ez badira, behintzat.

3. ATALA - Kandelazubieta polikiroldegia

23. ARTIKULUA

Polikiroldegiko pista erabiltzeko, pistan praktikatu daitekeen edozein jardueratarako, pista aurretiaz erreserbatu behar da, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

4. ATALA - Sarrienako instalazioak

24. ARTIKULUA

Instalazio hau erabiltzeko, horretarako egokitutako belar artifizialeko zelai bietako edozein, aurretiaz erreserba egin behar da, araudi honetan xedatutakoaren arabera.

25. ARTIKULUA

Belar naturaleko zelaia eta lurrezko zelaia Udalarekin zelai horiek erabiltzeko hitzarmenak sinatu dituzten elkarte edo erakundeek bakarrik erabili ahal izango dituzte.

5. ATALA - Ondiz pabiloia

26. ARTIKULUA

Ondizko probalekua erabiltzeko Udalarekin hitzarmenak sinatu dituzten elkarte edo erakundeek bakarrik erabili ahal izango dute.

V. KAPITULUA - KIROL-INSTALAZIOAK ERRESERBATZEA

1. ATALA - Alderdi orokorrak

27. ARTIKULUA

Instalazioak orokorrean erabiltzeko ordutegian, instalazioak erabiltzeko aurretiaz erreserba egin behar da, igerilekuetarako eta búlder gelarako izan ezik.

28. ARTIKULUA

Instalazioak erreserbatzeko, harpidedun gisa hartuko dira Udalarekin sinatutako hitzarmen edo akordioen arabera hala ezartzen diren talde edo pertsonak, fisikoak edo juridikoak.

Erreserbak egiteko ordutegia UKIetako Zuzendaritzak zehaztuko du.

Instalazioetara harpidetutakoek Sakonetako bulegoetan -erreserba egiten duen pertsonak berak zuzenean- edo telefonoz egin dezakete erreserba. Instalazioetara harpidetuta ez daudenek, berriz, Sakonetako bulegoetara joan behar dute erreserba egiteko.

Sakoneta polikiroldegiko bulegoetan erreserbak egitean, derrigorrez ordaindu behar da erreserbaren zenbatekoa; bulegoetan egindako erreserbek lehentasuna izango dute telefonoz egindakoen aldean.

Harpidedunek eta harpidedun kategorian sartutakoek nahi duten instalazioa erabili baino astebete lehenago ere egin ahal izango dituzte erreserbak eta, gutxienez, jarduera burutu baino 48 ordu arinago ordaindu behar dute. Edozein arrazoi dela-eta, interesdunak ezin badu instalazioa

erreserbatutako orduan erabili, beste erreserba bat egin dezake edo, bestela, ordaindutako dirua itzuliko zaio, beti ere ezetza gutxienez 48 orduko aurretiaz ematen bada. Joan ezin duela esateko, interesduna Sakoneta polikiroldegiko bulegoetara joan daiteke edo telefonoz jakinarazi dezake.

Harpidedun ez direnek, gehienez 48 ordu lehenago egin ditzakete erreserbak eta erreserba interesdunak berak ordaindu behar du momentuan bertan; erreserba ezin da ezeztatu.

Erreserbaren titular gisa agertzen den pertsonak, ezinbestean hartu behar du parte erreserbatu den jardueran.

Harpidedunek, gehienez, bi erreserba egin ahal izango dituzte egutegiko asteko; erreserba horiek ezin dira egun berbererako egin. Murriztapen horrek ez du balio instalazioa ordubete lehenago erreserbatuta ez badago eta norbaitek erabili nahi badu.

Harpidedun ez direnek, berriz, astero erreserba bat egin dezakete gehienez.

Artikulu honetan adierazitako arauak ez dute eraginik kiroleko medikuntza, masaje eta sauna zerbitzuetan; izan ere, zerbitzuon arauak araudi honetako beste atal batean zehaztuta daude.

29. ARTIKULUA

Udaleko kirol-instalazioetako arduraduna arduratuko da erreserbak aldatu edo ezeztatzeaz, eta une zehatz batean gerta daitezkeen zirkunstantzia bereziak, hala aholkatzen dutenak, kontuan izango ditu.

Kasu horietan, edo UKIei egotzi dakizkion arrazoiak direla-eta, jarduera bat burutu ezin denean, erreserbategatik ordaindutako diru-kopurua itzuliko da edo erreserba beste egun batera aldatuko da. UKIek kirolarekin zerikusia duten edozein motako ekintzak edo ikuskizunak antolatzeko eskubidea dute.

2. ATALA - Sarrienako zelaiak

30. ARTIKULUA

Belar naturaleko zelaiak eta lurrezko zelaiak Udalarekin hitzarmenen bat sinatu duten elkarte edo erakundeek bakarrik ahal izango dituzte erabili.

Belar artifizialeko zelaietan zelai erdia (7 futbola) edo zelai osoa (11 futbola) erreserbatu daiteke. Zelai osoa erreserbatzean, erreserba bi erreserba balira bezala kontatzen da, harpidedun edo erabiltzaile batek gehienez egin dezakeen erreserba-kopuruari dagokionez aurreko artikuluan xedatutakori jarraiki.

Zelai osoa erreserbatzen bada, zelaia 11 futbolerako erabili behar da; zelai erdi erreserbatzen bada, berriz, zelaia 7 futbolerako erabili behar da.

VI. KAPITULUA - UKI-ETAKO ZERBITZUAK

1. ATALA - Kiroleko medikuntza zerbitzua

31. ARTIKULUA

Kiroleko medikuntza zerbitzuaren helburu nagusia, jarduera fisiko osasungarria izateko asmoz, UKIak erabiltzen dituzten pertsona guztien kirol-praktika orientatu eta kontrolatzea da, batez ere kirol-eskoletan eta antolatutako gainerako jardueretan izena ematen duten pertsona guztiena, bai eta eskola-ume eta hirugarren adinekoena ere.

Interesdunek, harpidedun zein harpidedun ez direnek, Udalak ezarritako antolaketa-eta lehentasun-irizpideen arabera erabili ahal izango dute zerbitzu hau, aurretiaz hitzordua jarri eta horretarako onetsitako tarifak ordaindu ondoren.

2. ATALA - Masaje zerbitzua

32. ARTIKULUA

UKIetako masaje zerbitzuan hiru masaje mota ematen dira: erlaxatzeko masaje terapeutikoa, kiroleko masajea -biak ordu erdiko saioetan- eta zelulitisaren kontrako tratamendua -ordu eta erdiko saioak-.

Interesdunek, harpidedun zein erabiltzaileek, masajeak hartu ahal izateko, hitzordua eskatu behar dute aurretiaz, telefonoz edo bertara joanda, eta gero beharrezko tarifa ordaindu behar dute (saio bakarra edo hainbat saiotarako bonua).

Erreserbak egiteko ez dago mugarik denbora aldetik; erreserbak nahi besteko aurretiaz eta nahi beste egin daitezke, eta ezeztatze honako denbora-tartea dago:

·Masaje terapeutikoa eta kiroleko masajea: 2 ordu arinago.

·Zelulitisaren kontrako tratamendua: erreserbatutako egunaren bezperan.

Erreserba ezeztatzen bada, ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko; hitzordua aldatu egingo da.

Erreserba baten edo bonu baten zenbatekoa itzultzeko modu bakarra medikuak interesdunari

masajeak hartzea komeni ez zaiola ziurtatzea da.

3. ATALA - Sauna zerbitzua

33. ARTIKULUA

Sauna zerbitzuan interesa duten pertsonen, harpidedunek nahiz erabiltzaileek, zerbitzua erabili ahal izateko hitzordua eskatu behar dute aurretiaz, telefonoz edo bertara joanda, eta gero beharrezko tarifa ordaindu behar dute. Tarifa desberdina izango da banakako sarrera, taldeko sarrera -taldeko sarrera dela esango da gutxienez lau pertsonen osatutako taldea denean- edo zenbait saiotarako banakako bonua izan.

Erreserbak egiteko ez dago mugarik denbora aldetik; erreserbak nahi besteko aurretiaz eta nahi beste egin daitezke, eta ezeztatu ere ez da aurretiaz egin behar. Aurretiaz ordaindutako erreserbak ezeztatuz gero, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.

Saunako bonuen eskuratzen diren egutegiko urterako bakarrik balio dute. Urte amaieran, harpidedun edo erabiltzailearen batek bonua amaitu gabe badauka, baliozkotasun-epea luzatu egingo da, bonuaren prezioak izan duen gorakada ordaindu ondoren; bonua amaitzeko falta den saio kopurua ordainduko da.

Bonu baten zenbatekoa itzultzeko modu bakarra medikuak interesdunari sauna erabiltzea komeni ez zaiola ziurtatzea da.

VII. KAPITULUA - HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

34. ARTIKULUA

UKIak erabiltzen dituzten pertsonen monitore eta arduradunen argibideak bete behar dituzte eta instalazioak eta kirola egiteko materiala behar den moduan erabiliko dituzte; horrela bada, pertsonen eta ondasunen kalterik eraginez gero, eurak izango dira erantzuleak. Beti ere, instalazioak erabiltzeko araudian zehaztutakoaren arabera jokatu beharko dute.

Bai monitoreek, bai UKIetako arduradunek ere, aurreko paragrafoan xedatutako betetzen ez duten pertsonen instalazioetarako sartzeari galarazi diezaiekete edo pertsona horiek instalazioetatik bota ditzakete. Horrez gainera, arauak betetzen ez dituzten pertsonen zigorrak ezarri ahal zaizkie eta pertsona horiek eragindako kalteak ordaindu behar dituzte.

35. ARTIKULUA

UKIak erabiltzerakoan kalterik gertatzen bada, ezin izango zaio Leioako Udalari errua egotzi edo kalteak ordaintzeko esan, kirol-praktika zuzentzeaz arduratutako langileen errua edo arduragabekeriagatik (egon badago) edo materiala edo instalazioak egoera txarrean egon direlako gertatu ez bada, behintzat.

36. ARTIKULUA

UKIetako monitore edo arduradunen argibideei kasurik egiten ez dieten pertsonen edo instalazioak eta kirolerako materiala behar bezala erabiltzen ez dutenek, eta, orokorrean, lokal edo instalazioei edo bertako elementuren bati kalteak eragiten dizkieten pertsonen, zigorra jasoko dute jarraian zehaztutako araubideari jarraiki eta zenbait puntu kontuan izanda: nahita izan den ala ez, hutsegitea larria ala arina izan den eta zenbateko kaltea eragin duen. Hona hemen zigorrak:

1.Harpidedun izateari utziko zaio eta/edo ezin izango dira UKIak erabili denboraldi batez (bi urte eta egun batetik bost urtera bitartean).

2.Harpidedun izateari utziko zaio eta/edo ezin izango dira UKIak erabili denboraldi batez (sei hilabete eta egun batetik bi urtera bitartean).

3.Harpidedun izateari utziko zaio eta/edo ezin izango dira UKIak erabili denboraldi batez (hamaika egunetik sei hilabetera bitartean).

4.Harpidedun izateari utziko zaio eta/edo ezin izango dira UKIak erabili denboraldi batez (egun batetik hamar egunera bitartean).

37. ARTIKULUA

Hutsegite arinak direla esango da:

1.Borondate txarrez edo arduragabekeria larritz, lokaletan edo materialetan 60 eurotik beherako kalteak eragiten badira.

2.Lokaletan edo materialetan kalteak eragiten badira baina borondate txarrik edo arduragabekeria larririk gabe.

3.UKIetako monitore edo arduradunen argibideei kasurik egiten ez bazaie.

4.UKIetako langileekin edo erabiltzaileekin behar bezala jokatzeko ez bada.

5.Iruzurra egin eta instalazioetan sartzen bada (hutsegite larria ez denean).

6.Erreserbei buruzko arauak hausten badira.

Hutsegite arinei aurreko artikuluko 3 eta 4 ataletan xedatutako zigorrak ezarriko zaizkie, gertatu diren zirkunstantziak kontuan izanda.

Hutsegite larriak, berriz, honako hauek dira:

1.Beste erabiltzaile batzuen edo Udalaren ondasunak lapurtzea edo lapurretan parteko izatea.

2.Borondate txarrez edo arduragabekeria larriz, lokaletan edo materialetan 60 euro edo 60 eurotik gorako kalteak eragiten badira.

3.Liskarrak edo istiluak sortu edo eurretan parte hartzen bada.

4.Udaleko arduradunekin, UKIetako langileekin edo erabiltzaileekin txarto jokatzeko bada.

5.Iruzurra egin eta instalazioetan sartzen bada, hilabete batean hiru bider baino gehiagotan.

Hutsegite larriari aurreko artikuluko lehen hiru ataletan xedatutako zigorren bat ezarriko zaie, eta kasu horretan ere, gertatu diren zirkunstantziak kontuan izango dira.

Zigorrak ezartzeko interesdunarekin hitz egingo da aurretiaz eta, gainera, beharrezkoa bada, interesdunak eragindako kalteak ordainduko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera sartuko da indarrean, berau onesteko beharrezko izapideak egin ondoren.

